



Iruñeko I bertsopaper lehiaketa

Parte-hartzaileak:

Lehiaketan parte hartu ahalko dute nafar egileek edo nafarrak izan gabe, helbidea Nafarroan dutenek.

Kategoriak eta lanen ezaugarriak

A kategoria:

- . 2007an edo ondoren jaiotakoak
- . 2 bertso gutxienez, 4 gehienez

B kategoria:

- . 2003 eta 2006 urteen artean jaiotakoak (biak barne)
- . 4 bertso gutxienez, 8 gehienez

C kategoria:

- . 2002an edo lehenago jaiotakoak
- . 12 bertso gutxienez, 20 gehienez (elkarrekin nolabaiteko batasuna osatu beharko dute)

A eta B kategorietan egileek hiru bertsopaper aurkeztu ditzakete gehienez ere. C kategorian lan bakarra aurkezten ahalko dute.

Aurkeztutako lanek gai eta neurri librea izan behar dute, euskaraz idatziak izan beharko dute, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak. Ezinbestekoa da bertsoen doinua zehaztea.

Sariak

A kategoria

1. Saria: 150 euroko kultura-bonoa
2. Saria: 100 euroko kultura-bonoa
3. Saria: 50 euroko kultura-bonoa

B kategoria

1. Saria: 350 euro
2. Saria: 200 euro
3. Saria: 150 euro

C kategoria

1. Saria: 1.500 euro
2. Saria: 1.000 euro
3. Saria: 500 euro

Aurkezteko modua eta epea

Lanak jasotzeko azken eguna 2020ko irailaren 30a izanen da.

Parte-hartzaileek haien lana eta parte hartzeko datuak aurkeztu beharko dituzte www.irunakulturada.eus edota www.pamplonaescultura.es webguneetan, horretarako prestatutako formulario bat betez.

Epaimahaia

Epaimahaia Nafarroako Bertsozale Elkarteak izendatuko du eta bertsolaritzaren arloko hiru adituk osatuko dute.

Sari-banaketa

Sari-banaketa Iruñeko Udalak eta Nafarroako Bertsozale Elkarteak antolatzen duten Bertsoaroa zikloan izanen da, 2020ko azaroan.

Kontuan hartu beharreko beste batzuk

Saria nori eman behin ebatzi eta gero, saritutako lanak ezin izanen dira aurkeztu inongo lehiaketatar, ezta inongo saririk jaso ere.

Behin saria ordainduta –sariari berari dagokion diru-ordaina baino ez da jasoko–, egileek saritutako lanak argitaratzeko baimena emango diete Iruñeko Udalari eta Nafarroako Bertsozale Elkarteari, lehiaketa ebatzi eta urtebeteko epean.

Halaber, C kategorian lehenengo saria jasotzen duen egileak baimena emango die Iruñeko Udalari eta Nafarroako Bertsozale Elkarteari saritutako lanean oinarritutako emanaldi edo ikuskizun berri bat ekoizte aldera, lehiaketa ebatzi eta urtebeteko epean, egileak sariari berari dagokion diru-ordaina baino jasoko ez duelarik.

Lehen argitalpena edo ekoizpena egiteko izan ezik, saritutako lanak ustiatzeko eskubide guztiak zein bere egilearenak izango dira.